

Donostian, 2024ko urriaren 16a

IKASTOLETARAKO OHARRA

LABek atera duen prentsa-oharraren balorazioa

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren harira LAB sindikatuak ateratako prentsa-oharraren inguruan, honako hau helarazi nahi diogu Ikastolen komunitateari.

- Kezka handiz bizi dugu Ikastoletako eta Ikastolen Elkarteko gehiengo sindikala daukan LAB sindikatuak Gizarte Ekimeneko Eskola Itunduak eta Ikastolak parekatzeko egin duen ariketa. Zaku berean sartzen gaitu eta modu berean tratatzen gaitu.
- Aurreakordioa sinatzeko egindako prozesuaren ondoren, ez dugu inondik inora ulertzen LAB sindikatuak Ikastolak aipatzen dituen oharrean erabiltzen duen tonu bortitza.
- LAB sindikatuak zenbait gezur esaten ditu bere prentsa-oharrean:
 - a. *Langile guztientzako lortu duela ekiparazioa.* Soldata-igoera honek Ikastoletako langile batzuegan bakarrik du eta eragina. Gainerako langile guztien soldata-igoera Ikastolak hartu dugu gure gain, honek dakarren gailakostuarekin. Langile guztien soldata-ekiparazioa ez dago inon aurreikusita.
 - b. *Gobernuak onartutako diru-partida Ikastolak jasoko dugula.* Hau ere ez da horrela, Hezkuntza sailak irakasle batzuei zuzenean ordainduko die soldata-igoera hori ordainketa eskuordetuaren bitartez.

LABek ondo baino hobeto daki bi bieztapen hauek ez direla egiazkoak. Hala ere, horrela jasotzea erabaki du.

- LABek jakin badaki nolakoa den aurreakordioak Ikastoloi suposatu digun gailakostua (ordainketa eskuordetuan ez dauden langile guztien soldata-igoera) eta testuinguru honetan ez dugu onartzen doakotasunean jarri izana bere lehentasuna.

- Ez dugu ulertzen LABek kuotak kontrolatu eta zigortzeko egiten duen aldarrikapena. Ondotxo daki sindikatuak gure finantziazioak ez duela doakotasunerako aukerarik ematen gaur gaurkoz, eta kuotak ezinbestekoak ditugula bizirauteko.
- “Kontrola” eta “zigorra” hitzak erabiltzean gaizkiletzat tratatzen gaitu sindikatuak, eta ez gaude horrelakoak onartzeko prest.
- Kontratazioen inguruan egiten duen gardentasun-faltaren salaketa arbuiagarria deritzogu guztiz. Gure kontratazioak gardenak dira eta irakaslegoaren ordezkariak parte hartzen dute hautaketa-prozesuetan. Hori badakite edo jakin beharko lukete.
- Iraingarria iruditu zaigu Jaurlaritzaren dirua soldatak igotzea ez den beste zerbaitetarako erabiliko dugula iradokitzea. Alde batetik, LABek ondo daki diru hori zuzenean jasoko dutela langileek, eta, bestetik, ez dakigu zertara datorren dirua ondo ez erabiltzearen salaketa-iradokizuna egitea.
- Ez dugu ez tonua ez edukia ulertzen. Harrigarria egin zaigu Ikastoletako eta Ikastolen Elkarteko ordezkari sindikalekin (guztiak LABekoak) daukagun harreman eta lan dinamika ikusita, honelako prentsa-ohar bat irakurtzea.
- Honengatik guztiagatik LAB sindikatuak kaleratutako prentsa-oharra Ikastolen mugimendurako iraingarria eta oso mingarria dela baloratzen dugu.

LABekin presazko bilera eskatu dugu gai hau tratatzeko.

Donostian, 2024ko urriaren 16a

NOTA PARA IKASTOLAS

Valoración de la nota de prensa de LAB

En relación con la nota de prensa emitida por el sindicato LAB a raíz del acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno del Gobierno Vasco, queremos trasladar a la comunidad de Ikastolas lo siguiente.

- Vivimos con preocupación el ejercicio de equiparación entre las Escuelas Concertadas de Iniciativa Social e Ikastolas realizado por el sindicato LAB, que cuenta con la mayoría sindical en las Ikastolas y en Ikastolen Elkartea. Nos mete en el mismo saco y nos trata de la misma manera.
- Tras el proceso llevado a cabo para la firma del preacuerdo por ambas partes, no entendemos en absoluto el tono violento que utiliza el sindicato LAB en la nota a la que hace referencia las Ikastolas.
- El sindicato LAB miente en su nota de prensa al decir:
 1. *Que ha conseguido la equiparación para todos los trabajadores.* Este incremento salarial sólo afecta a algunos trabajadores de las Ikastolas. El incremento salarial de todos los demás trabajadores lo asumimos las Ikastolas con el sobrecoste que esto supone. La equiparación salarial de todo el personal no está prevista en ninguna parte.
 2. *Que la partida presupuestaria aprobada por el Gobierno Vasco la recibiremos las Ikastolas.* Esto tampoco es así, el Departamento de Educación abonará directamente este incremento salarial a algunos profesores mediante el pago delegado.

LAB sabe perfectamente que estas dos afirmaciones no son ciertas. Sin embargo, ha decidido redactarlo de ese modo.

- LAB es consciente del sobrecoste que el preacuerdo nos ha supuesto a las Ikastolas (incremento salarial de todo el personal que no está en pago delegado) y, en este contexto, no admitimos que ponga ahora su prioridad en la gratuidad.

- No entendemos la reivindicación de LAB de controlar y sancionar las cuotas. El sindicato sabe perfectamente que nuestra financiación no permite, hoy por hoy, la gratuidad y que mantenemos las cuotas imprescindibles para sobrevivir.
- El sindicato nos trata como delincuentes al utilizar las palabras “control” y “sanción” y no estamos dispuestos a tolerar tales formas.
- Consideramos totalmente rechazable la denuncia de falta de transparencia que realiza en relación con las contrataciones. Nuestras contrataciones son transparentes y los representantes del profesorado participan en todos los procesos selectivos. Eso lo saben o deberían saberlo.
- Nos ha parecido ofensivo insinuar que vamos a utilizar el dinero del Gobierno Vasco para algo que no sea subir los salarios. Por un lado, LAB sabe muy bien que ese dinero lo van a recibir directamente los trabajadores y, por otro, no sabemos a qué viene hacer una denuncia-sugerencia de no utilizar bien el dinero.
- No entendemos ni el tono ni el contenido de la nota. Nos ha sorprendido leer una nota de prensa de estas características, a la vista de la dinámica de relaciones y de trabajo que mantenemos con los representantes sindicales de las Ikastolas y de Ikastolen Elkartea (todos ellos de LAB).
- Por todo ello, valoramos la nota de prensa del sindicato LAB como ofensiva y muy dolorosa para el movimiento de las Ikastolas.

Hemos solicitado una reunión urgente con LAB para tratar este tema.